



(1919-2019) EHUNDU ARGIA

Carles Puigdemont, ARGIA eta industria-espioitza



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Inork espero ez zuenean iritsi zen akordioa. CUPEk jasandako presio guztien gainetik lortu zuen Mas lehen planotik ateratzea. Carles Puigdemont. ARGIA-ko erredakzioa bero. Albistea osatu eta azken mugimenduen analisia egin beharra zegoelako gehien bat, noski, baina bolo-bolo zebilen izen “berri” hori ere ez zelako edozein ARGIArentzat. Aste-beteko bazkalosteko kontakizunetarako eman zuen gaiak.

Euskaldunon Egunkaria sortu berriak gonbidatuta etorri zen 1991n Puigdemont Donostiara, bertan antolatu zuten “Estatutik gabeko hizkuntzetako egunkariaren jardunaldi”ra, Eslovenia-ko eta Irlandako kideekin batera. Bera *El Punt*, Girona inguruko egunkaririk. Ez zen azken bidaia izango. Ezagutu zituen ARGIAko eta Ametzagaiña taldeko beste enpresetako lagunak, euskarazko prentsari egiturazko eta ekonomiazko babesa ematen ari zirenak. Laster ireki zizkien Puigdemont gazteak *El Punteko* atea, euskaldunak hizkuntzaren eta kulturaren trataerarekin, eta lagun eta enpresa haiekin zituzten antzekotasunek erakarrita.

Askorentzat Kataluniako egunkari erreferentea zen *Avui* porrot egin zuen, eta hasiera batean promesa ez zen *El Punt* txikiak 2009an erosi zuen. Ordurako egunkaria utzi eta Agencia Catalana de Noticias (ACN) sortua zuen Puigdemontek Bartzelonan, internetarako saltoa emanda. Eta ARGIAk 1997an sarrera emandako pausoa aitzakia hartuta beste bisita batzuk egiteko aukera izan zuen zenbaitek bai ACNra eta baita Assumció Maresmek eta Vicent Partalek gidatutako orduko *Vilaweb* txikira ere. Hori ez bada industri-espioitza...

Beti prest komertzialki bezala ikuspegi nazional eta politikoaren inguruko iritzia emateko, azkenekoz *Catalonia Today* Kataluniako aktualitatea ingelesez munduratzeko egunkaria egiten ezagutu du ARGIAk Gironakoa, kazetaritza munduan. ARGIAk izan dituen zenbait erroka bideratzeko pistak eman dizkie Herrialde Katalanek eta Carles Puigdemontek; eta elkartasun keinuak ere izan ditu, 2003an *Euskaldunon Egunkariaren* itxierak ARGIA ere kolpatu zuenean Kataluniako herritarren artean emandako babesa kasu. ■

“ARGIA da egun dagoen komunikazio proiektu onena”

Berrizko harpidedun bat

Albo kaltea, euskal kultura kontsumitzea



Rajoy eta harpidetza kanpaina



ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskal Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.